

Supa ketxua kongresuko batzordeburu

IAZKO APIRILEAN eman genuen orriotan Hilaria Supa Peruko kongresuko diputatuaren berri. Orduko albistearen izenburua hauxe zen: “Hilaria Supak ez luke diputatu izan behar, ez daki idazten”. Kongresuan apunteak hartzen ari zela argazki kamerak “harrapatu” zuen eta gaztelaniaz egindako ortografia akatsak agerian geratu ziren. 20 urtera arte ketxua hiztuna izandakoari egurra



eman zioten hainbat egunkaritan, oinarrizko idatzizko gaztelania ez jakiteagatik. Bada, duela gutxi, Hezkuntza, Zientzia, Teknologia, Kultura, Kultur Ondarea, Gaztedia eta Kiro-lak batzordeko presidente izendatu dute. Noski, izan dira kontra egin dutenak, esanez gai horietan ez dela aditua.

Informazio gehiago duzue Nila Vigilen webgunean: <http://nilavigil.wordpress.com>

“Sortir de l’armari lingüístic”

IZENBURU HORI du Gemma Sangüinés eta Ferran Suay psikologo valentziar ezagunek idatzitako liburuak. Iñaki Arrutik eman digu liburuaren berri gipuzkoaeuskara.net-eko kontakizunean. Sei pertsonaiak katalanarekin dituzten bizipenak eta anekdotak kontatu dituzte egileek, erraz irakurtzeko estiloan idatzita. Ondokoak dira sei pertsonaiak: Taliana, la parlant romanesa; Khadim, el parlant africá; Bernat, el parlant cremat; Tomeu, el parlant tímido; Miren, la parlant basca; eta Neus, la parlant militant.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Iparraldeak bere erretretak defendatzen ditu

Euskal Herria estatu gisa egituratzen ez den bitartean eta subiranotasun politikoa lortzen ez duen bitartean, euskal herritarrek bi estaturi egin beharko diote aurre eskubideak defendatzeko, baita Europar Batasunari ere. Aste honetan Iparraldeko herritarrei dagokie kalera ateratzea lan eta gizarte eskubideak defendatzeko, kapitalismo globalak mehatxaturik baitaude. Irailaren 7an sindikatuek deia egin die Frantziako Estatu kide guztiei greba eta mobilizazio egunean parte hartu dezaten, erretreta hartzeko adina atzeratzeko asmoen kontra. Iparraldean, deialdi horrek sindikatu guztien babesa du, LAB barne, mugaren bi aldetan ezarrita dagoen sindikatu abertzale bakarra. Ekainaren 24ko mobilizazioak izandako arrakastak –Baionako manifestazioan 10.000 lagunek parte hartu zuten–, erantzun irmoagoa iragartzen du oraingorako.

Zergatik irailaren 7an? Egun horretan hasiko du Frantziako Asanblea Nazionalak pentsioen erreformaren eztabaida. Frantziar exekutiboak erretreta atzeratzea aurreikusi du 60 urtetatik 62 urtera, eta 40 urteko kotizazioa mantendu. Sindikatuek, aldiz, eskatzen dute erretreta hartzeko adina 60 urtean mantentzea –55 urterekin lan nekagarriak direnean– eta kotizazioa 37,5 urtera itzultzea.

Erreformat egiteko garaian, Europako gobernu guztiek, bai eskuineko bai ezkerreko, finantza merkatuen exigentziak direla diote. Enpresarien aldeko neurriak hartzen dituzte (zergak murriztu, kaleratzeak merkatu...) eta bisturia sartzen dute langile eta herri klaseetan. Iparraldeko herritarrek, aste honetan, Sarkozyren erreformaren kontra daudela erakutsiko dute greba eta manifestazioekin, eta duintasuna dutela ere erakutsiko dute, kapitalismoaren erasoaren aurrean. Hegoaldeko herritarrek ere beste hainbeste egin dute, orain arte bezala eta hemendik aurrera.

Juan Mari Arregi

BAHEA

ZuZeu.com-en Tolosako Euskararen Semáforotik hartua: “Etorkizunera begira jarri aurretik, begira diezaiozun egungo egoerari. Realak Bai Euskarari Ziurtagiria du, ‘Bidean’ mailan. Zer gertatzen da, euskaraz mailaz igotzeko diru laguntza behar duela? Beste enpresa batzuek beren poltsikotik ordaintzen dute euskararen alde hartzen dituzten neurriak. Realak ezin du hori egin? (...) Realeko jokalariek ez dute euskara planik behar izan, igoerako ospakizunetan euskara sano-sano erabiltzeko, eta, horregatik, zoriondu egin dituzte, gainera. Zoriondu egin behar dira euskaldunak jendaurrean euskaraz egiteagatik?”

martinrezola erabiltzaileak Tirakan esandakoak: “Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko lege-dekretuak eta bainurako txanoak berdinak dira. Bazoaz San Andreseko igerilekura eta irakurtzen duzu: ‘Txanoa erabiltzea derrigorrezkoa da’. Eta denak txintxo-txintxo burua estalita. Bazoaz Mendizorrotzako igerilekura eta irakurtzen duzu: ‘Txanoa erabiltzea gomendatzen da’, eta den-denak txanorik gabe”.